

Iñigo Olabarri | BILBO

Linoa atarateko egiten zan beharra beste sasoi batzuetako oroitzapena baino ez da kasu gitxi batzuetan dimoztarren etxeetan. Beste batzuetan oroitzapen hori be ez da geldituko. Kontuak kontu, inork berreskuratzetik gura baleuke aukera hori eskaintzen dau Laratzu Etnografi Taldeko Zefe Ziarrustak, Enrike Ibabek, Abel Ariznabarretak eta Kepa Velasco argitara emon daben liburua. *Lino-beharrak eta Dimako emakumeak* da historiaren parte baten lekukotza eskainiko dauen liburua. Gaur aurkeztuko dabe Dimako herri ikastetxean arrastiko 19:00etan.

«Orain apenas ikusten dan linorik herrietako lurretan, baina 50 hamarkadara arte garrantzi handia eukon landareak», dino Enrike Ibabek. Handik ataratako hariagaz egiten ziran arropak, izarak, mantelak eta etxerako eta soinerako behar izaten ziran gainontzekoak.

Hamarkada horren ostean industrializazioaren ondorioz galdu egin ziran behar horreek. Laratzu taldeak orain dala 20 urte inguru egin eban ikerketan, behar hori bete eben azkenengo belaunaldiko andrakaz egin eban behar hori. Herriak bere iraganaren barri jakitea beharrezkoa da Laratzukoentzat.

Liburuan linotik haria atarateko egin behar izaten zan behar luzea kontatzen dabe egileek. Linoa batu eta gero, haren muina atara behar izaten zan, Enrike Ibabek, Laratzu taldeko partaideetako batek, *Bizkaia*-ri adierazo deusonez. «Prozesu luzea da muina ataratearena. Linoa batu eta gero, putzuetara eroetan zan. Han ur azpian sartzen ebezan».

Lau aste eukiten ziran han, azala apur bat usteldu arte. Gero lino sortari hazia kendu behar izaten jakon. Tauki ganean ipinten zan sorta eta egurrezko mailu bategaz jotzen eben. «Hazi hori barriro ereiteko eta medikuntza herrikoirako gelditzen zan», nabarmendu eban Enrike Ibabek.

Gero tranga bategaz ezpatatzen zan linoa. Labearen inguruan egiten zan behar hori. Izan be, linoa epel egotea garrantzitsua izaten zalako. «Auzolanean egiten zan hori. Etxe batean gelditzen ziran eta bakotxak bere trangea eroaten eban».

DESAGERTUTA

Industrializazioa sartzeagaz batera albo batera itxi zan linoa egiteko behar handi hori

Muina atarateko beharrak aurrera segitzen eban oraindino be. Ezpata bategaz jotzen eben buruz behera egoan T baten ganean ipinitako linoa. Gero sarrantxeagaz orraztu. Lurrera jausten zanagaz, burileagaz, ez eben ezer egiten. Beste zati bat sarrantxan gelditzen zan. «Hori amilue zan», dino Enrike Ibabek. «Amiluegaz hari latza egiten zan». Eta andrearen eskuetan gelditzen zan haria zan kirrue. «Hori zan gero haria egiteko erabiliko ebena».

Hori dana muina lortzeko egin behar izaten eben. Hortik aurrera hasten da haria atarateko beharra. Bigarren arlo horretan badago beste alderdi interesgarri bat. «Haria egiteko beharrak etxe batean egiten dira. Etxe baten batzen dira gauero. Aste bakotxean etxe bat hartzen dabe batzeko. Zapatura arte egiten dabe behar etxe horretan. Hurrengo astean beste batean. Andra bakotxan berea egiten dau». Horren

Hariaren haritik tiraka

‘LINO BEHARRAK ETA DIMAKO EMAKUMEAK’. Gaur arrastiko 19:00etan aurkeztuko dabe Dimako herri ikastetxean Laratzu Etnografi Taldearen liburua



LARATZU ETNOGRAFIA TALDEA

GORUETAKO MAKINEA. Andren beharra erraztu eban. Makina horrek 30 pezeta balio zituan 1918an.



ENRIKE IBABEK

PROZESUA. Oso prozesu luzea izaten zan linoa batzen zan momentutik haria atara artekoa.

ostean linoa zuritu egiten eben, arte errautsakaz egiten zan prozedura bategaz. Horren ostean matazakegin eta matazetatik oihala ataraten eben.

Gaubelak: ohiturak, balioak eta ezkontzak

Arlo sozialean garrantzi ikaragarrikoak izan ziran horreek batzarrok. «Alderdi ekonomikotik garrantzitsuak ziran, baina askozaz garrantzitsuagoak izaten ziran kultura, ohiturak, balioak... belaunaldiz belaunaldi transmititzeko».

Ez zan hori bakarrik, ezkontzak be linoa egiteko batzen ziran egunetan urtetan eben kasu batzuetan. «Aste guztiko gaubelak zapatuetan amaitzen ziran. Horreetan gizonak be baegozan. Berba egin eta hartuemonak hasten ziran, eta askotan ezkontzak urtetan ziran hortik. Hain ziran garrantzitsuak ze, ezkontzen ziran, gurdietan goruak leku onetan eroaten ebezan». Gaubelak amaitzen ziran, haria egiteko sasoi amaitzen zanean, jai handia prestatzen zan: *Sorgin-afaria*. «Jai zoragarria ei zan. Ez zan abadeen gustukoa».